

# IKARA

## 1. zatia

Nire bizitza “errusiar mendi” horietako baten antzekoa izan da beti, momentu on bat iristen zenean eta dena ondo zihoala iruditzen zitzaidanean, dena okertu egiten zen. Horregatik, eta nire egiturarik gabeko bizitzagatik, oraintxe nagoen lekuan amaitu dut, ez naiz kexatzen; azkenean, amaierako hilabete hauetan, dena maldan behera joan zaidalako.

Dena nik 14 urte nituenean hasi zen, etxean 4 bizi ginen; ama, aita, amona eta ni. Amona niretzat bigarren ama baino zerbait gehiago zen, nire zoriontasuna haren mende zegoen. Egun arrunt batean, nire bi lagun minekin, Amelia eta Elenarekin, eskolatik etxerako bidea egin nuen, beti bezala. Ameliaren etxea niretik 2 minutura zegoen; Elenarena, berriz, zertxobait urrunago zegoen, baina guk baino urtebete gehiago zeukanez, bera bakarrik itzul zitekeen. Amelia eta Elena agurtzean, giltzak ahaztu nituela oroitu nintzen; hortaz, amona etxean zegoela jakinda, etxeko txirrina jo nuen. Lehenengoan amonak ez zuen erantzun, bigarren saiakera bat egin nuen badaezpada, baina erantzun gabe jarraitzen zuen.

Gurasoak etortzeaz zeudelakoan nengoen; horregatik, atarian itxarotea egokiena zela iruditu zitzaidan, eta hala egin nuen. 10 minutu inguru itxaron ostean, Karmen, nire bizilaguna agertu zen. Erosketen poltsak zeramatzan; hortaz, atea ireki zuenean lagundu egin nion eta berarekin igo nintzen. Etxe atarian itxaroten egon nintzela esatean, arraroa irudi zitzaion nire familiako inork atea ez irekitzea; izan ere, bera erosketak egitera joan zenean, aita igogailuan ikusi zuela eta berarekin hitz egiten aritu zela komentatu zidan. Niri ere arraroa egin zitzaidan, baina agian gero berriz ere jaitsi egin zela pentsatu nuen, ez nion garrantzia handirik eman. Karmenen pisura iristean, agurtu eta 7. pisua sakatu nuen, bera 5.ean bizi zelako, ni baino 2 pisu beherago. Atea jo nuenean, amak ireki zidan, eta

barkamena eskatu zidan lehen ez irekitzeagatik; berak esan zidanagatik, bainu bat hartzen ari zen.

Ettxera sartzean, amona ez zegoela konturatu nintzen eta amari ea zer gertatu zen galdetu nion. Hasieran ez zidan ezer esan nahi, baina azkenean, estropezu egin zuela sukaldatzen eta aitak badaezpada ospitalera igo zuela esan zidan, baina ez zela ezer larririk gertatu nabarmendu zuen; egia esan, horrek ez ninduen gehiegi lasaitu. Nire gelara joan nintzen etxeko lanak egitera eta hurrengo egunetako globaletarako ikastera, baina amonarena nuen buruan, amak ez zidan argi utzi zer gertatu zitzaion eta. Arratsaldeko 7ak aldera, goseak amorratzen nengoen eta sukaldera joan nintzen jateko zerbait hartzera. Sukaldera iristean, kaxoi batzuk irekita zeudela ikusi nuen, eta zenbait tresna kanpoan zeudela ohartu nintzen. Horrek zer pentsatua eman zidan; amonak beti dena ezin hobe uzten zuen, horrelakoxea zen amona, dena txukun eta garbi nahi zuen. Hortaz, gauzak hartu eta bere tokian utzi nituen, baina tresna bat falta zela ohartu nintzen; bi kolpetako kortxo-torlojua. Amonak ez ukitzeko esan ohi zidan txikitan, arriskutsua zela. Amari galdetu nahi nion, baina amona aitarekin ospitalera joan zela esan zidanean arraro xamar zegoenez, ez nuen gehiago izutu nahi izan; hortaz, txokolate barra bat hartu eta nire gelara joan nintzen berriz ere.

Afaltzeko ordua iritsi zenean, amarekin soilik nengoen, baina egia esan, hain urduri eta beldurtuta nengoenez, ez nuen ezer jateko gogorik izan. Erlojua begiratu eta 22:50 zirela ikusi nuenean, atea no zutela entzun eta arrapaladan joan nintzen. Amona eta aita zirela ikustean, amona inoiz ez bezala besarkatu nuen, lehen esan bezala, nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuena delako. Aita agurtu ere ez nuen egin. Amona besotik eutsi eta bere logelara eraman nuen, eta jateko zerbait prestatu nion. Gau hartan ez nuen ia begirik bildu; amonarekin igaro nuen gau osoa, baina arraro nabaritzen nuen. Hasieran normala iruditu zitzaidan, izu handia sentitu zuelako, baina batzuetan dardarka nabaritu nuen, eta egindako zauriak ezkutatu nahian. Hasieran, ni ez urduritzeko egin zuela pentsatu nuen, edo behintzat, hori sinetsi nahi izan nuen. Gaueko ordu biak iristean, oso nekatuta sentitzen

nintzenez, lo egitera joatea erabaki nuen, baina amonari zerbait behar baldin bazuen arazorik gabe esnatzeko eskatu nion, eta agurtzeko musua ematera nindoala, kontutxo bat xuxurlatu zidan belarrian; ikara. Ez nuen ezer ulertzen, ez nekien zergatik esan zuen hori eta benetan larritzen hasi nintzen.

## *2. zatia*

Hurrengo egunetan, egoera baretu egin zela ematen zuen, ez zen ezer bitxirik gertatu, baina egia esatea nahi baldin baduzue, gau hark nire bizitza guztiz aldatu zuen; ikara hitzak beldurra esan nahi duela jakin banekien, baina zeri zion beldurra amonak?

Gertatutakoari buruz ez nuen inorekin hitz egin, ezta Ameliarekin eta Elenarekin ere, ez zela horrelakorik berriz gertatuko pentsatuz. Baina berriz ere “ileak tente” jartzeko moduko egoera bat gertatu zen. Egun batean, eskolatik jolas orduaren ondoren ateratzera behartu gintuzten; “eskolako arazo pribatuak” zirela esan ziguten, jakina, ez zuten arrazoirik eman. Beti bezala, Ameliarekin eta Elenarekin itzuli nintzen, nahiz eta etxera joan baino lehenago eskola parean zegoen goxoki dendan sartu ginen zerbait erosteko. Ondoren, ordu bata aldera etxera itzuli nintzen, etxean soilik amona zegoelakoan; ordu hartan ama eta aita lanean zeudelako.

Oraingo honetan, ez nituen giltzak ahaztu, eta arazorik gabe sartu nintzen, baina etxera sartzera nindoanean, soinu arraroak entzun nituen. Hortaz, ez nuen ia zaratarik egin nahi izan giltza atean sartzean, eta etxe barrura sartzean, soinuak ozenago entzun nituen; aitak etxean zeukan bulegotik zetozen. Atea zabalik zegoenez, hanka puntetan hurbildu nintzen, eta inoiz baino “ikara” gehiago sentitu nuen; amonak belaunak eta besoak zauriz beteta zituen, eta lurrean odol arrastoa ikusten zen. Ezin izan nion neure buruari eutsi eta izugarrizko oihua bota nuen, aita beldurrak jota ia lurrera erortzeraino. Aitak sukaldean itxaroteko agindu zidan, gertatutakoa argi eta garbi azalduko zidala. Ni korrika batean sukaldera sartu nintzen, eta aita berehala agertu zen. Amona lehengoan ospitalera eramateko arrazoi bera errepikatu zidan; amona ikusmena galtzen ari zenez (hori egia zen,

azkenaldi honetan ez zuen ondo ikusten), estropezu egiten zuela, eta oraingo honetan ohetik erori eta alboko mahaitxoaren kontra kolpe handia hartu zuela esan zidan.

Momentu hartan, ez nekien zer pentsatu, ezta aitari zer esan ere. Ez ninduen erabat ase bere argudioak, baina ez nuen gaia gehiago nahastea nahi izan. Amonarengana joan nintekeen galdetu nion, baina ezer baino lehen, etxean ordu haietan zer egiten nuen galdetu zidan, eta gertatutakoa azaltzean, amorruzko aurpegia jarri zuen. Egia esatea nahi baduzue, izutu egin nintzen pixka bat. Sukaldean jarraitzeko esan zidan, amonaren zauriak sendatu arte, eta halaxe egin nuen; isil-isilik eta dardarka nengoen. Gutxi gorabehera 35 minutu igarotzean, amonarengana joan nintekeela esan zidan, eta ziztu bizian sukaldetik desagertu nintzen. Amona besarkatzean negar zotinka ari nintzen, eta bera ere negar isilean ari zen. Aitak lanera itzuli behar zuela esan zigun, zauriak gaiztotzen baziren abisatzeko eta etxera berehala itzuliko zela baieztatu zuen.

Amonak ez zuela hitz egiteko indarrik konturatu nintzen; hortaz, berarekin isilpean gelditu nintzen han. Momentu batetik bestera, altxatu eta mahaitxo ireki zuen, eskuetan zerbait hartu eta nire ondora itzuli zen. Eskuak zabaltzeko eskatu zidan, eta alboetara begiratu ondoren, eskuak ireki eta bi kolpetako kortxo-torlojua zela ikusi nuen. Buruarekin hartzeko keinua egin zidan, eta nik poltsikoan ondo gorde nuen; egia esan, ez nekien zehazki zertarako beharko nuen, baina ikusten nuenez, larrialdi momentu bat zen.

### *3. zatia*

Orain azalduko dizuedana, azkarregi igaro zen, ez dakit ondo kontatzen jakingo dudana, baina saiakera egingo dut. Amonak kortxo-torlojua eman zidanetik, beti nirekin eraman dut eta nire inguruan gertatzen zenari adi egoten saiatu nintzen. Egingo nuena erokeria izango zela ziur nengoen, baina amonak txikitatik esan zidan bezala, "bizitza honetan ausarta izan behar da".

Egun batean, etxetik ateratzean, eskolara nindoanaren itxura egin nuen, baina erdibidean etxetik gertu zegoen kaleska batean sartu nintzen; handik etxeko ataria ikusi ahal izateko. Goizeko 8etan iritsi nintzen hara, baina 10:30 arte ez zen ezer ere gertatu; nik aurreikusita nuen bezalaxe, amona eta aita ikusi nituen ataritik ateratzen. Momentu hartan, “flashback” moduko bat etorri zitzaidan, eta amonak esandako hitzaren esanahiaz konturatu nintzen; txikia nintzenean, gure etxetik ez oso urrun dauden kobazulo batzuetara joaten nintzen amonarekin. Beti dena ilun-ilun egoten zen, hortaz, “ikara” esaten nuen, orduantxe ikasi nuelako hitz horren esanahia. Amonak barre egiten zuen nik “ikara amona, ikara” esaten nuen bakoitzean, eta oraingo honetan, primeran nekien nora joan behar nuen, eta “ikara” pasatuko nuela ere bai.

Aitak eta amonak ni ezin ikusi nindutela ziurtatu arte pixka bat itxaron nuen, eta ondoren, ziztu bizian joan nintzen kobazuloetara. Inoiz baino azkarrago iritsi nintzen hara, eta ahalik eta soinu gutxien egiten saiatu nintzen. Kobazuloen barnean nengoenean, urrunean argia ikusten nuen, beraz, han zeudela jakin nuen. Pixkanaka, argitara hurbiltzen joan nintzen, eta hara iristean, amona izan zen ni ikusi ninduen lehena, eta jarri zuen aurpegiera betiko iltzatuta geratu zait buru-bihotzetan. Momentu hartan, aitak ikusi ninduen, eta oraingo honetan lurrera erori zen izuaren izuaz. Amonarengana joan nintzen; eserleku batean zegoen, besoak eta hankak sokaz loturik. Askatzen saiatu nintzen, baina ezinezkoa egin zitzaidan; orduan, amonak emandako bi kolpetako kortxo-torlojuaz oroitu nintzen, baina ateratzera nindoala, aita amonaren atzera hurbildu eta bizkarrean labankada bat eman zion.

Une hartan, mugitu ezinik gelditu nintzen, eta gizon hura, nire aita, pizti bihurtu zen. Zoratuta egongo balitz bezala hasi zen biraka, eskuak burura eramanda; orduan, nire bizitzako erabakirik onena hartu nuen, bi kolpetako kortxo-torlojua hartu eta bularrean ziztatu nion; lurrera erori eta nire aurrean odolusten hasi zen. Nik, ikarak hartuta, mugikorra hartu eta 911era deitu nuen; “nire parean hildako bat dago, hil berri dut”, esan nuen.

Une hartatik aurrera zer gertatu zen imajinatuko duzuela suposatzen dut, ez naiz damutzen eta ez naiz inoiz damutuko egin nuenagatik; zuek, nire egoeran zer egingo ote zenuket, bada?